



## PRENTSARAKO OHARRA

18/06/22

### **Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak interes gatazkei eta bateraezintasunei buruzko Foru Arau proiektua aurkeztu dau batzordean**

Orain aste batzuk Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontsejuak onetsi ostean, Ibone Bengoetxea Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andreak Batzarretako taldeen aurrean aurkeztu dau gaur goizean interes gatazkei eta bateraezintasunei buruzko Foru Arau proiektua. “Aldundiko kargu publikoa dan bitartean bateraezintasunak eta interes gatazkak sortzea saihestera” zuzendutako arauzko tresnea, kargu publikoen egiteko “integroa, gardena, inpartziala eta arduratsua” bermatuko duten beharrezko mekanismoen edo tresnen bitartez.

Aldundiko arduradunak bere agerraldian azaldu dauenez, Araua Ahaldun Nagusiari eta gainerako Foru Diputatuei, Foru Administraziozko zuzendaritza nagusiei eta Bizkaiko foru sektore publikoaren esku edo haregaz lotuta dagozan erakundeen zuzendaritzetara eta gerentzietara dago zuzenduta.

Ibone Bengoetxeak adierazo dauenez, Arau hori “Bizkaiko Foru Aldundiak gauzatu edo gauzatzen dituan beste politika edo tresna batzuen ildo beretik doa” eta, printzipio etikoak eta gobernu onekoak bermatzeaz aparte, “sistemari zelanbaiteko koherentzia emoten deutso, politika modu positiboan ikusteko modu horregaz”.

Arauzko testua lau gaitan zentretan da. Lehenengoa, printzipio etikoak eta gobernu onekoak eskuratzea, “kargu publikoen egitekoak gauzatzeko modua bideratzeko” helburuz; horrez gain, “kargua indarrean dagon bitartean sortu daitekezan interes gatazkak eta bateraezintasunak prebenitzeko eta identifiketako arauzko erregulazinoa” ezartea eta jarraitu beharreko prozedura bideratzea; beste alde batetik, “Aldundiko kargu publikoaren estatutuaren oinarritzko elementuak” zehaztuko ditu “kargu publikoen izendapenari eta euren bateraezintasun eta bateragarritasun arautegiari” jagokenez; eta, bukatzeko, Araua bera beteteko eta zehapen araubidea garatzeko berme sistema be jasoten dau.

Horri jagokonez, araua beteten dala bermatzeko, interes gatazkak eta bateraezintasunak kudeatuko dituan eta horreen jarraipena egingo dauen Berme Organu bat sortzea aurreikusten dau arauzko testuak. Horrez gain, Organu horrek berak foru zuzendaritzetako karguen katalogoa kudeatu eta eguneratuko dau eta foru kargu publiko moduan dagozan betebeharren betetearen ganeko informazinoa emongo deutse Aldundiko gobernu kontsejuari eta Batzar Nagusiei. Horrez gain, Organuak zehatzeko gaitasuna be eukiko dau, arau hausteak tipifikauko eta ezarri daitekezan zehapenak arautuko dituan zehapen araubide baten bitartez.

Oposizinoko talde batzuk, Podemos Bizkaiak edo EH Bilduk, arauzko testuari zuzenketa-eskeak aurkezteko orduan zalantza batzuk planteetako baliau dabe euren txandea. Modu

berean, Talde Popularrak azterketa fasean dagola adierazo dau, eta Talde Mistoko ordezkariak “kontuz ibili” beharra azpimarratu dau “zorrotzegeiak edo bigunegiak ez izateko”.

Ekain Rico Euskal Sozialistak taldeko ordezkariak, bere aldetik, bere taldeak Foru Araua modu positiboan hartzen dauela adierazo dau, “bete egin dan konpromisoa” dalako. “Politikan gagozanok ez gara arpegi gogorrak, eta gatx jarri gura deusagu holangoei”, adierazo dau batzordekide sozialistak. Modu berean, Euzko Abertzaleak taldeko ordezkariak, “oso prozesu positiboaren” hasierea dala adierazo dau, eta balioan jarri dau Aldundiak arlo horretan egin dauen ibilpidea.

## EZ DA ONETSI ENDOMETRIOSIAREN IKERKETAREN GANEKO ARAUZ BESTEKO PROPOSAMENA

Foru Diputatuaren agerraldiaz aparte, Batzarretako taldeek endometriosiaren ikerketaren eta alderdi terapeutikoaren ganean aurkeztutako Arauz Besteke Proposamena eztabaidatu eta ostean atzera bota dabe. Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeen arteko zuzenketa-eske transakzional bateratuaren bitartez, hau eskatzen eben: endometriosiaren ikerketara zuzendutako funtsak handitzea; Eusko Jaurlaritzari informazio sistemak hobetzea, “gaur egun dagozan ezagutza gabeziak arintzeko”, profesionali zuzendutako prestakuntza plan espezifikoa bultzatzea, gaixotasun hori hobeto ezagutu daien; Osakidetzak EAEko endometriosi kasuen erregistroa sortzea; eta endometriosiaren gaia irakaskuntza arautuko eskolako curriculumean sartzea.

Neskutz Rodríguez Podemos Bizkaiako ordezkaria eta Meritxell Elgezabal EH Bildukoa bat etorri dira esatean beharrezkoa dala endometriosisa “gaixotasun isila” izateari iztea, eta gaixotasun horri buruzko “informazioaren, prestakuntzaren eta ikerketaren” alde behar egitea. Eduardo Andrés Talde Popularreko ordezkaria proposamenaren alde agertu da argi eta garbi, eta baita Arturo Aldecoa Talde Mistoko batzordekidea be. Gaia “konplexua” dala autortu arren, proposamenak “logikoak” dirala esan dabe eta, hori dala eta, aldeko botoa emon dabe.

Foru Gobernua eusten daben taldeek, euren aldetik, zuzenketa-eske “jeneralistagoa” aurkeztu dabe, María Presa Euzko Abertzaleak taldeko ordezkariak esan dauen moduan. Batzordekideak, aldi behingo azterketek daukien garrantzia azpimarratu dauen arren, ezeztu egin dau endometriosisa isilpean dagonik. Talde bien eskariei erantzunez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eskaintzen dauen arreta “integral, kalidadezko eta etenbakoan”, endometriosiaren alderdi terapeutikorako protokoloa dagola eta “profesionali zuzendutako prestakuntzea eskaintzen dala” esan dau.

Euzko Abertzaleak taldeko batzordekideak esan dauen moduan, Ekain Rico Euskal Sozialistak taldeko ordezkariak ekimena Eusko Legebiltzarrean landu behar dala eta bertan Osasun Sailari azalpenak eskatzeko aukerea be egongo dala azaldu dau. Beraz, azkenean proposamena ez da onetsi, Foru Gobernua eusten daben taldeen kontrako botoakaz eta oposizio talde guztien aldekoakaz.

NOTA DE PRENSA

22/06/18

## **La Diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales presenta en comisión el Proyecto de Norma Foral de conflicto de intereses e incompatibilidades**

Tras ser aprobado hace unas semanas por el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, la Diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales Ibone Bengoetxea ha presentado esta mañana a los grupos junteros el Proyecto de Norma Foral de conflicto de intereses e incompatibilidades. Una herramienta normativa dirigida a “prevenir la aparición de incompatibilidades y conflictos de interés durante el ejercicio del cargo público foral” a través de los mecanismos o instrumentos necesarios que garantice un ejercicio “íntegro, transparente, imparcial y responsable” de los cargos públicos.

La Norma estará dirigida, según ha explicado la responsable foral en su comparecencia, tanto al Diputado General como al resto de Diputados y Diputadas Forales, a las direcciones generales de la Administración foral así como a las direcciones y gerencias de las entidades dependientes o vinculadas al sector público foral de Bizkaia.

Ibone Bengoetxea ha manifestado que esta Norma “va en línea con otras políticas o instrumentos ya llevados a cabo o que está desarrollando la Diputación Foral de Bizkaia” y que, además de garantizar los principios éticos y de buen gobierno, “dotan también al sistema de cierta coherencia con esa visión de la política en positivo”.

El propio texto normativo se centra en cuatro cuestiones. En primer lugar, la provisión de principios éticos y de buen gobierno a fin de “orientar el ejercicio de las funciones por parte de los cargos públicos”; también establecer “una regulación normativa de prevención e identificación de los conflictos de interés e incompatibilidades que puedan surgir durante el cargo” y orientar en el procedimiento a seguir; por otra parte determinará “los elementos básicos del estatuto del cargo público foral en lo relativo a la designación de los cargos públicos y a su régimen de incompatibilidades y compatibilidades”; y por último incorpora un sistema de garantías para el cumplimiento de la propia Norma y el desarrollo del régimen sancionador.

A este respecto, con el fin de asegurar el cumplimiento de la norma, el texto normativo prevé la creación de un Órgano de Garantía que gestione el régimen de conflictos de intereses e incompatibilidades y realice un seguimiento del mismo, además de gestionar y actualizar el catálogo de cargos de dirección forales, e informe tanto al consejo de gobierno de la Diputación como a las Juntas Generales del cumplimiento de las obligaciones como cargos públicos forales. Éste además contará con una potestad sancionadora a través de un régimen sancionador en el que se tipifiquen las infracciones y regulen las pertinentes sanciones.

Algunos grupos de la oposición como Podemos Bizkaia o EH Bildu han aprovechado el turno de intervenciones para plantear algunas dudas de cara a la hora de enmendar el texto normativo. De igual manera, el Grupo Popular ha manifestado que se encuentran en fase

de estudio, mientras que el representante del Grupo Mixto ha incidido en la necesidad de “hilar fino” a fin de “no ser ni demasiado rígidos ni demasiado blandos”.

Por su parte el representante del grupo Socialistas Vascos, Ekain Rico, ha declarado que su grupo acoge con positividad esta Norma Foral, al tratarse este de un “compromiso cumplido”. “En política quienes estamos no somos jetas y queremos ponérselo difícil a quienes lo sean”, ha manifestado el apoderado socialista. De igual manera el representante de Nacionalistas Vascos ha expresado que éste se trata del inicio de un proceso “muy positivo” y ha puesto en valor el recorrido que la Diputación ha realizado en este ámbito.

#### PROPOSICIÓN NO DE NORMA RELATIVA A LA INVESTIGACIÓN DE LA ENDOMETRIOSIS RECHAZADA

Además de la comparecencia de la Diputada Foral, los grupos junteros han debatido y posteriormente rechazado una Proposición No de Norma relativa a la investigación y el abordaje-terapéutico de la endometriosis. Mediante una enmienda transaccional conjunta entre Podemos Bizkaia y EH Bildu solicitaban incrementar los fondos destinados a la investigación de la endometriosis; pedir al Gobierno Vasco que mejore los sistemas de información para “paliar los déficits de conocimiento existentes”; promover un plan de formación específico dirigido a los profesionales con el objetivo de que conozcan mejor la enfermedad; que Osakidetza cree un registro de casos de endometriosis en la CAV; e incluir el tema de la endometriosis en el currículum escolar de la enseñanza reglada.

Tanto la representante de Podemos Bizkaia, Neskutz Rodríguez, como la de EH Bildu, Meritxell Elgezabal, han incidido la necesidad de que la endometriosis deje de ser “una enfermedad silenciada” y en la importancia de trabajar en pro de la “información, formación e investigación” sobre esta enfermedad. El argumentario de ambos grupos ha sido firmemente apoyado por el Grupo Popular, a través de su representante Eduardo Andrés, y el apoderado del Grupo Mixto Arturo Aldecoa, que a pesar de valorar el tema como “complejo” han definido las propuestas como “lógicas”, llevándoles por lo tanto a votar favorablemente.

Los grupos que sustentan al gobierno foral, por su parte, han presentado una enmienda de carácter más “generalista”, tal y como la ha definido la representante del grupo Nacionalistas Vascos, María Presa. La apoderada, si bien ha hecho un llamamiento a la importancia que tienen las revisiones periódicas, ha negado que la endometriosis esté silenciada. Haciendo referencia a las peticiones de ambos grupos, ha explicado que además de la atención “integral, de calidad y continuada” que ofrece el Departamento de Salud del Gobierno Vasco, existe un protocolo de abordaje terapéutico de la endometriosis y se “ofrece una formación dirigida a los profesionales”.

Al igual que la apoderada de Nacionalistas Vascos, el representante de Socialistas Vascos, Ekain Rico, ha explicado que la iniciativa debe ser debatida en el Parlamento Vasco, donde además se podrán pedir explicaciones al Departamento de Salud. La propuesta, por lo tanto, ha sido finalmente rechazada con los votos en contra de los grupos del Gobierno Foral, y los votos favorables de los grupos de la oposición.